

– Javier García González jauna Osasun saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzaren teknikaria, eta bere ordezkoa den José M.^a Arteagoitia Axpe jauna.

– Luis Ignacio Domingo Uriarte jauna, Osasun saileko Osasun Antolamenduko Zuzendaritzako teknikaria, eta bere ordezkoa den Aranzazu Arrazola Arrien andrea.

– Carlos Gárate Ibarгүйen jauna, Osasun saileko Osasun Antolamenduko Zuzendaritzako teknikaria, idazkari gisa arituko dena, eta bere ordezkoa den Imanol Arana Ariz jauna.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek indarra izango du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 1999ko apirilaren 21a.

Osasun sailburua
GABRIEL M.^a INCLAN IRIBAR.

KULTURA SAILA

Zk-2418

AGINDUA, 1999ko maiatzaren 26koa, Kultura sailburuarena, euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko dirulaguntzak emateko modua arautzen duena.

Azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarriko Legearen laugarren kapituluak, euskal herri-agintariak euskara gizarte-bizitzaren alor guztietan erabili dadila sustatzeko neurri egokiak hartu eta beharrezko baliabideak jarriko dituztela dio. Hori kontuan izanik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak dirulaguntzak emango dizkie helburu horietara iristeko programak gauzatzen dituzten pertsona juridiko pribatuei.

Bestalde, Kultura Sailak dirulaguntza horietarako deialdia egin zuen Euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko dirulaguntzak emateko modua arautzen duen 1998ko apirilaren 29ko Aginduaren bidez. Agindu horrek indarrean jarraitzen du, aurrekontuen luzapen-epean Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura laguntzak eta dirulaguntzak arautzen dituzten zenbait xedapenen indarraldiari buruzko abenduaren 15eko 371/1998 Dekretuaren arabe-

– D. Javier García González, Técnico de la Dirección de Salud Pública del Departamento de Sanidad, y suplente D. José M.^a Arteagoitia Axpe.

– D. Luis Ignacio Domingo Uriarte, Técnico de la Dirección de Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad, y suplente Dña. Aranzazu Arrazola Arrien.

– D. Carlos Gárate Ibarгүйen, Técnico de la Dirección de Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad, quien actuará como Secretario, y suplente D. Imanol Arana Ariz.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de abril de 1999.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.^a INCLAN IRIBAR.

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Nº-2418

ORDEN de 26 de mayo de 1999, de la Consejera de Cultura, por la que se regula la concesión de subvenciones para la promoción, difusión y/o normalización del euskara.

El capítulo cuarto de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, prevé que los poderes públicos adoptarán las medidas pertinentes y aportarán los recursos necesarios para la promoción del uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social. Por consiguiente, la Viceconsejería de Política Lingüística otorgará subvenciones a las personas jurídicas privadas que desarrollan programas encaminados a la consecución de los objetivos anteriormente indicados.

Durante el año 1998, el Departamento de Cultura realizó la convocatoria de las presentes ayudas mediante la Orden de 29 de abril de 1998 de la Consejera de Cultura por la que se regula la concesión de subvenciones para la promoción, difusión y/o normalización del euskera. Dicha Orden mantiene su vigencia de conformidad con el Decreto 371/1998, de 15 de diciembre, sobre mantenimiento en vigor de determinadas disposiciones reguladoras de ayudas y subvenciones con car-

ra. Horrela bada, Euskadiko aurrekontu-araubideari buruz indarrean dauden lege-xedapenen testu baterabildua onartzen duen irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuaren IX. tituluan ezarritako luzapen-araubidean oinarrituz, aurtengo laguntzen deialdia egin daiteke.

Hori horrela, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua. – Xedea.

Agindu honen xedea euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko lanetan diharduten pertsona juridiko pribatuei 1999ko dirulaguntzetarako dei egitea da eta dirulaguntza horiek emateko modua arautzea.

Horretarako, guztira, 80.000.000 PTA izango dira dirulaguntzetarako.

2. artikulua. – Dirulaguntza-jasotzaileak.

Indarrean dagoen legediaren arabera eraturiko eta dagokion eroldan inskribaturiko pertsona juridiko pribatuek eskatu eta eskura ditzakete agindu honetan ezarritako dirulaguntzak.

Agindu honetan ezarritako dirulaguntzak lehiaketa-jardunbidearen bidez emango dira. Hori horrela, aurrekizutako eskabideen arteko konparaketa egingo da eta, 10. artikuluan finkatutako balorazio-irizpideak kontuan, lehentasunak ezarriko dira; ondorioz, puntu gehien lortzen dituzten eskabideek jasoko dute dirulaguntza.

Dirulaguntzak esleitzeko edo, hala dagokionean, ordaintzeko, ezinbesteko baldintza izango da onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomiadunek emandako antzeko dirulaguntzaren bat dela eta hasitako eta oraindik ere izapidetzen ari den itzultze edo zigortzeko jardunbidea bukatua izatea.

3. artikulua. – Dirulaguntzen organo kudeatzailea.

Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honen ondoriozko kudeaketa-lanak egi-tea.

4. artikulua. – Dirulaguntza-gaiak.

1.– 1999an gauzatzekoak diren ondoko programak, proiektuak, jarduerak edo produktuak izan daitezke dirulaguntza-gai:

a.– Enpresetan euskararen erabilera areagotzeko planak: kasuan kasuko planaren bideragarritasuna, diseinua edota enpresako koordinatzaileak planaren inple-

go a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en periodo de prórroga presupuestaria y ello permite, en función del régimen de prórroga regulado en el Título IX del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, realizar la convocatoria de las ayudas correspondientes a este año.

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo 1. – Objeto.

la presente convocatoria tiene por objeto regular para el ejercicio 1999 la concesión de subvenciones a personas jurídicas privadas que desarrollan una labor de promoción, difusión y/o normalización del euskera.

A ese fin se distribuirá un total de 80.000.000 pesetas en subvenciones.

Artículo 2. – Beneficiarios.

Podrán solicitar las subvenciones reguladas por la presente Orden todas aquellas personas jurídicas privadas que se hallen constituidas con arreglo a la legislación vigente e inscritas en el registro correspondiente.

Las subvenciones que se otorguen al amparo de la presente Orden, lo serán mediante el procedimiento de concurso. A estos efectos, la concesión se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de valoración fijados en el artículo 10, adjudicando aquéllas que hayan obtenido mayor puntuación.

La concesión y, en su caso, el pago de la subvención a la entidad beneficiaria quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

Artículo 3. – Órgano competente para la gestión de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección de Estudios y Promoción del Euskera la realización de las tareas de gestión de la presente convocatoria.

Artículo 4. – Actividades subvencionables.

1.– Podrán ser objeto de subvención los programas, proyectos, actividades o productos que se realicen en el presente ejercicio 1999 y que a continuación se enumeran:

a.– Los planes destinados a incrementar el uso del euskera en las empresas, a saber, la viabilidad, el diseño y/o el seguimiento de la implementación del plan

mentazioaz egindako jarraipena. Gainontzeko kostuak, ordea, ez dira diruz lagunduko deialdi honen bidez: 20.000.000 PTA.

b.– Euskararen ondarea (kantua, bertsoak, euskalkiak, etab.) jaso, gorde eta gizarteratzeko egitarauak: 10.000.000 PTA.

c.– Euskaraz egindako materialak sustatzeko eta bideragarriago egiteko ekimenak edo ekintza programak, batik bat, haur eta gazteentzat prestatuak, besteak beste, aldizkarien harpidetzak ugaritzea, euskarazko bideoak, bideojokoak, jostailuak, joko hezigarriak eta antzekoak, softwareak, etab. zabaltzeko eginikoak, etab.: 18.000.000 pta.

d.– Euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko egitarauak: 7.000.000 PTA.

e.– Irratietan euskararen erabilera sustatzekoak: 10.000.000 PTA.

f.– Bestelako egitarauak: euskararen erabilera aisian, haur eta gazteen hizkuntza gaitasuna sendotzeko antolatutako egitarauak, monitoreen prestakuntza, materiale-sorkuntza, euskararen historian edo hizkuntzari loturiko hainbat eremutan izen handia duten pertsonaia omentzeko edo bestelako ospakizunak antolatuzko jarduerak, etab.: 15.000.000 PTA.

2.– Aurreko idatz-zatian zehaztutako dirulaguntzagaien multzoetakoren batean edo batzuetan, hain zuzen ere »b», «c», «d», «e» eta «f» multzoetan, diru-soberakinik izanez gero, hurrengo multzora pasako da eta horrela, hurrenez hurren. «a» multzoan soberakinik izanez gero, multzo horretako azpimultzoetan banatuko da, 10. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

5. artikulua.– Baldintzak.

1.– Dirulaguntza jaso ahal izateko hurrengo baldintzak bete beharko dituzte guzti-guztiek:

- a) Autofinantziazioa gutxienez %30ekoa izatea.
- b) Euskara hutsean izatea.

2.– Enpresetan euskararen erabilera areagotzeko proiektuak aurkeztu nahi dituztenek honako beste baldintza hauek ere bete beharko dituzte:

a) Enpresako agente guztien adostasuna eskuratu ondoren, plana bideratzen hasteko dagokion organoak hartutako erabakia aurkeztea.

b) Planaren koordinatzailearen izen-abizenak aurkeztea.

c) Bideragarritasun-azterketa edo/eta planaren diseinua egingo duen enpresa edo elkartearen izena, eta burutzeko epea aurkeztea.

en cuestión por parte del coordinador de la empresa. No se subvencionará a través de esta convocatoria el resto de los conceptos: 20.000.000 PTA.

b.– Los programas destinados a recopilar, salvaguardar y recuperar para su uso social el patrimonio del euskera (canciones, versos, dialectos, etc.): 10.000.000 PTA.

c.– Iniciativas o programas de acción destinados a promocionar y a facilitar la viabilidad de los materiales elaborados en euskera, especialmente los destinados al público infantil y juvenil, entre otros, los programas dirigidos a ampliar las suscripciones de las revistas, los programas de difusión de vídeos, videojuegos, juguetes, juegos didácticos y similares, softwares, etc. en euskera, etc.: 18.000.000 PTA.

d.– Los programas que tengan por objeto incentivar el hábito de la lectura en euskera: 7.000.000 PTA.

e.– Los destinados a fomentar el uso del euskera en las radios: 10.000.000 PTA.

f.– Otros programas: uso del euskera en el tiempo de ocio, programas destinados a consolidar la competencia lingüística de los niños y jóvenes, formación de monitores, creación de material, actividades dirigidas a la celebración de efemérides relacionadas con el euskera, con la historia de la lengua y/o con aquellos personajes que han sido protagonistas relevantes en su desarrollo en diferentes aspectos, etc.: 15.000.000 PTA.

2.– En el caso de que en alguna/s de las áreas de actividades subvencionables contemplados en el apartado anterior, en concreto en los grupos «b», «c», «d», «e» y «f» quedara alguna cantidad sin distribuir, ésta se destinará al grupo siguiente, y así sucesivamente. En el caso de que quedara alguna cantidad sin distribuir en el grupo «a», dicha cantidad se distribuirá dentro de los apartados de dicho grupo, de acuerdo con lo fijado en el artículo 10.

Artículo 5.– Requisitos.

1.– Los programas beneficiarios de las subvenciones otorgadas al amparo de la presente Orden, deberán cumplir los siguientes requisitos:

- a) Autofinanciación mínima del 30%.
- b) Estar realizados íntegramente en euskera.

2.– Las empresas solicitantes que presenten proyectos destinados a incrementar el uso del euskera en sus empresas, deberán cumplir además de los señalados anteriormente los requisitos que figuran a continuación:

a) La obtención de la conformidad de todos los agentes de la empresa, y posteriormente, la presentación de la resolución del órgano competente de inicio del plan.

b) La presentación del nombre y apellidos del coordinador del plan.

c) El nombre de la empresa o asociación que realizará el plan de viabilidad y/o el diseño del plan y el plazo de ejecución.

d) Lan munduan euskararen erabilera areagotzeko planetan orain arte landu den metodologia erabiltzea, hau da:

- Hiru urtetan aplikatzeko moduko plana jartzea martxan.
- Oinarrizko maila lortzea izango du lehenengo helburua, eta ez da maila jasoagotarako planik abian jarriko harik eta oinarrizko maila hori bere luze-zabal osoan eskuratu artean.
- Planaren garapenaren faseak, berriz, honako hauek izango dira:
 - bideragarritasun-azterketa
 - planaren diseinua
 - onartutako planaren inplementazioa
 - planaren jarraipena eta ebaluazioa
 - eskuratutako helburuak iraunarazteko egiturak eta baliabideak ezartzea

e) Eskaria zein fasetarako aurkeztu den zehaztea, hau da, bideragarritasun azterketa, diseinua edo jarraipena egiteko.

f) Planaren inplementazioan eman beharreko euskarazko eskolak, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) irizpideen arabera antolatzea.

g) Hitzarmena izenpetzea Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin, bataren eta bestearen ardurak eta betebeharrak zehazteko bertan.

6. artikulua. – Bazterketak.

Hona dirulaguntza horietaz balia ezin daitezkeen programak, proiektuak edo jarduerak:

a) Merkataritza-entitateek aurkeztutakoak, beren kapitalean herri-administrazio bakarrak edo gehiagok badeute partaidetza gehiena.

b) Gutxienik, kostu osoaren %30eko autofinantza-keta-mailara iristen ez direnak.

7. artikulua. – Eskabideak non eta nola egin.

Eskabideak (I. eranskina) Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan aurkeztu beharko dira, bai zuzenean bai azaroaren 26ko 30/1992 Legeak finkatutako bideren bat erabiliz. Eskabidearekin batera, I. eranskinean eskatutako agiriak aurkeztu beharko dira. Hona helbidea:

Eusko Jaurlaritza
Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritza
Wellingtongo Dukea 2
01010 GASTEIZ
Tel. 945 - 01 80 90

d) La utilización de la metodología experimentada hasta ahora en los planes destinados a incrementar el uso del euskera en el mundo laboral, a saber:

- La puesta en marcha de un plan trianual.
- El objetivo primordial del plan será la consecución del nivel básico, y no se pondrá en marcha ningún otro plan de nivel más elevado, en tanto no se alcance en su totalidad dicho nivel básico.
- Las fases de desarrollo del plan serán las siguientes:
 - análisis de viabilidad
 - diseño del plan
 - implementación del plan aprobado
 - seguimiento y evaluación del plan
 - aplicación de estructuras y recursos que posibiliten la permanencia de los objetivos logrados.

e) La explicitación de la fase para la que se solicita la subvención: estudio de viabilidad, diseño o seguimiento.

f) Organizar las clases de euskera necesarias para la implementación del plan teniendo en cuenta los criterios del Instituto para la Reeskaldunización y Alfabetización de Adultos (HABE).

g) La firma de un convenio con la Viceconsejería de Política Lingüística en el que se plasmarán las responsabilidades y obligaciones de las dos partes.

Artículo 6. – Exclusiones.

No podrán ser objeto de subvención los siguientes programas, proyectos o actividades:

a) Los presentados por entidades mercantiles en cuyo capital sea mayoritaria la participación de una o varias administraciones públicas.

b) Los que no alcancen un índice de autofinanciación mínimo del 30%.

Artículo 7. – Cumplimentación y presentación de solicitudes.

Las solicitudes, según el modelo del anexo I y acompañadas de la documentación en el mismo exigida, se remitirán a la Viceconsejería de Política Lingüística del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, directamente o por cualesquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre a la siguiente dirección:

Gobierno Vasco
Departamento de Cultura
Viceconsejería de Política Lingüística
Dirección de Estudios y Promoción del Euskera
Duque de Wellington, 2
01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel: 945-01 80 90

8. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabide-orrria eta gainontzeko dokumentazioa aurkezteko hilabete izango da agindu honek ondorioak dituenetik hasita.

9. artikulua.– Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea.

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrak dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten badu Hizkuntza Politikarako Sailordetzako Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak, 10 egun emango zaizkio eskatzaileari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, interesdunak eskaeran atzera egin duela ulertuko da, beti ere dagoen ebazpena eman beharko dela.

10. artikulua.– Dirulaguntzak emateko irizpideak eta mugak.

1.– A motako egitarauak:

a) Enpresetan euskararen erabilera areagotzeko planak sustatzeko planetarako dagoen 20.000.000 PTA-tako dirulaguntza bi zatitan banatuko da, hala nola:

1.– Euskararen erabilera areagotzeko planaren bideragarritasun-azterketa edota diseinua egingo duten enpresen artean, 12.000.000 PTA banatuko dira.

2.– Euskararen erabilera areagotzeko plana garatzen ari diren enpresen artean, 8.000.000 PTA banatuko dira.

1. multzokoan banatu ondoren soberakina geldituz gero, 2. multzokoetarako erabiliko da, eta alderantziz.

b) Dirulaguntza-eskabideei buruzko erabaki-proposamena prestatzeko eta zenbatekoak finkatzeko, epai-mahaiak ondoko irizpideak izango ditu kontuan:

b.1.– Planaren bideragarritasun-azterketa edota diseinua egiteko dirulaguntza eskatzen duten enpresen kasuan:

1.– Autofinantzaketa-maila: %40.

2.– Euskararen erabilera areagotzeko plana egiteko enpresak jarritako bitartekoen esperientzia eta bermea: %15.

3.– Enpresako langile euskaldunen portzentaia: %15.

4.– Enpresako langile-kopurua: %10.

5.– Orain arte euskara sustatzeko enpresan burututako ekintzak: %10.

6.– Enpresaren jarduera: %10.

b.2.– Inplementazioaren jarraipena egiteko dirulaguntza eskatzen duten enpresen kasuan:

1.– Autofinantzaketa-maila: %40.

2.– Jarraipenaren betetze-maila: %25.

Artículo 8.– Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes y del resto de documentación exigida será de un mes, a contar desde el día en que surta efectos la presente Orden.

Artículo 9.– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

Si la Dirección de Estudios y Promoción del Euskera de la Viceconsejería de Política Lingüística advirtiera en la documentación presentada por la entidad solicitante la existencia de algún defecto o que la misma está incompleta, concederá a la misma un plazo de 10 días para que complete dicha documentación, transcurrido el cual sin haber procedido a la subsanación, se entenderá que el interesado retira su solicitud, para lo cual se adoptará la correspondiente resolución.

Artículo 10.– Límites y criterios para la adjudicación de las subvenciones.

1.– Programas tipo A:

a) La cuantía de 20.000.000 PTA destinada a los programas de promoción de planes cuyo objeto es el incremento del uso del euskera en las empresas se divide en dos cantidades, así:

1.– Se distribuirán 12.000.000 PTA entre aquellas empresas que vayan a realizar el estudio de viabilidad o diseño del plan de incremento del uso del euskera.

2.– Se distribuirán 8.000.000 PTA entre las empresas que estén desarrollando su plan de incremento de uso del euskera.

En el caso de que quedara alguna cantidad sin distribuir en el grupo 1 ésta se destinará al grupo 2, y al contrario.

b) Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las solicitudes de subvenciones y de establecer las cuantías de las mismas, el tribunal calificador tendrá en cuenta los criterios siguientes:

b.1.– En el caso de las empresas que soliciten subvención para la realización del estudio de viabilidad o diseño del plan:

1.– Índice de autofinanciación: 40%.

2.– La experiencia y garantía de los recursos aportados por la empresa para la realización del plan de incremento del uso del euskera: 15%.

3.– El porcentaje de los trabajadores euskaldunes de la empresa: 15%.

4.– Número de trabajadores de la empresa: 10%.

5.– Actividades realizadas por la empresa para la promoción del uso del euskera: 10%.

6.– La actividad de la empresa: 10%.

b.2.– En el caso de las empresas que soliciten subvención para el seguimiento de la implementación:

1.– Índice de autofinanciación: 40%.

2.– Grado de cumplimiento: 25%.

3.- Planean sartutako langile-kopurua: %25.

4.- Plana egiteko enpresak jarritako bitartekoen esperientzia eta bermea: %10.

c) Planaren fase bakoitzerako eskatzaile bakoitzari gehenez ere diru-kopuru hau emango zaio:

- 1.- Bideragarritasun txostenerako: 1.000.000 PTA
- 2.- Diseinurako: 2.000.000 PTA
- 3.- Jarraipenerako: 500.000 PTA

2.- Bestelako egitarauetan:

Dirulaguntza-eskabideei buruzko erabaki-proposamen prestatzeko eta zenbatekoak finkatzeko, epaimahaiak ondoko irizpideak izango ditu kontuan:

a) Autofinantzaketa-maila: %40

b) Euskararen sustapenean, garapenean eta normalizazioan izan dezakeen eragina. Originaltasuna eta bideragarritasuna: %25.

c) Euskararen esparru geografikorako izatea: %20.

d) Eskatzailearen izaera: esperientzia eta bermea, elkarlanean jardutea, ekintzaren hartzaile-kopurua: %15.

3.- Eusko Jaurlaritzak proiektu baterako emango duen dirulaguntza, gehenez ere, aurkeztutako aurrekontuaren %50 izango da dirulaguntza arrunten kasuan. Aurkezturiko programak, proiektuak edo jarduerak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren iritziz aparteko onura edo eragin berezia badakarkio euskararen normalizazioari, aurreko puntuan ezarritako muga gainditu ahal izango du Kultura Sailak bai eta, Epaimahaiak hala erabakiz gero, aurkeztutako aurrekontuaren %70 finantzatu ere. Horrelako kasuetan, Kultura Sailak eta diruz lagundutako programa, proiektua edo jarduera garatuko duen entitateak hitzarmena izenpetu beharko dute, bertan bi alderdion eskubideak eta betebeharrak zehatz-mehatz jaso beharko direlarik.

4.- «b», «c», «d», «e» eta «f» motako egitarauetarako, 250.000 PTatik beherako aurrekontua duten egitarauetarako, epaimahaiak dirulaguntzagaitzat proposatuz gero, 50.000 PTako dirulaguntza izendatuko zaie. Nolanahi ere, ez da inoiz 50.000 PTatik beherako dirulaguntzarik emango.

5.- Pertsona juridiko pribatu batek baino gehiagok elkarlanean gauzatzekoak diren egitarauen kasuan, eskabidea egiterakoan argi eta garbi zehaztu beharko da aurrekontuan zein den pertsona juridiko bakoitzak egitaraurako egiten duen ekarpena eta zein gastu hartzen dituen bere gain. Eskabidea, nolanahi ere, pertsona juridiko pribatu batek egingo du, besteen izenean.

3.- Número de trabajadores de la empresa incluidos en el plan: 25%.

4.- La experiencia y garantía de los recursos aportados por la empresa para la realización del plan de incremento del uso del euskera: 10%.

c) Para cada una de las fases del plan se concederá como máximo la siguiente cantidad:

- | | |
|----------------------------|---------------|
| 1.- Informe de viabilidad: | 1.000.000 PTA |
| 2.- Diseño: | 2.000.000 PTA |
| 3.- Seguimiento: | 500.000 PTA |

2.- Todos los demás programas:

Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las solicitudes de subvenciones y de establecer las cuantías de las mismas, el tribunal calificador tendrá en cuenta los criterios siguientes:

a) Índice de autofinanciación: 40%.

b) Contribución a la promoción, difusión y normalización del euskera. Originalidad y viabilidad: 25%.

c) Ser del ámbito geográfico del euskera: 20%.

d) Naturaleza de la entidad solicitante: experiencia y garantía, la actuación en colaboración con otras entidades, número de receptores de la actividad: 15%.

3.- El Gobierno Vasco financiará como máximo el 50% del presupuesto presentado de cada proyecto en el caso de las subvenciones ordinarias. Por el contrario, se podrá superar esa cuantía, en los casos en que la Viceconsejería de Política Lingüística considere que el programa, proyecto o actividad suponga una contribución extraordinaria o repercuta de forma especial en la normalización del euskera. En dichos casos, y si el Tribunal Calificador lo considerara oportuno, se podrá financiar hasta el 70% del presupuesto total. Si se diera esta circunstancia, el Departamento de Cultura y la entidad que lleve a cabo la realización del programa, proyecto o actividad subvencionada firmarán un convenio en el que se fijarán los derechos y obligaciones de las partes.

4.- Dentro de los grupos «b», «c», «d», «e» y «f», en el caso de los proyectos de presupuesto inferior a 250.000 PTA, si el tribunal los propone como beneficiarios, se les concederá una subvención de 50.000 PTA. De cualquier modo, en ningún caso se otorgarán subvenciones inferiores a 50.000 PTA.

5.- En el caso de los programas cuya realización corra a cargo de diferentes entidades, en colaboración, se deberá especificar en el presupuesto la aportación y los gastos correspondientes a cada persona jurídica privada, si bien la solicitud la deberá realizar una sola persona jurídica.

6.- Agindu honek ezartzen dituen dirulaguntzak bateragarriak dira edozein erakunde publiko zein pribatu xede berberaz eman ditzakeenekin, beti ere, agindu honen bidez lagundutako proiektuak gainfinantzaketarik ez badu. Gainfinantzaketarik gertatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da egitarauaren kostu osoari dagokion gehieneko kopurura ekarri arte.

Nolanahi ere, erakunde publikoek emaniko dirulaguntza ezingo da izan, inola ere, proiektuaren, programaren edo jardueraren kostuaren %70 baino handiagoa.

7.- Langileen soldata-gastuak direla eta, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak onartzen dituen Legeak ezarritakoa bete behar da.

11. artikulua.- Epaimahaia.

1.- Agindu honetara aurkeztutako dirulaguntza-ekabideak aztertu eta ebaluatzeko, Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko zuzendaria buru izango duen epaimahaia eratuko da. Hona epaimahaikideak:

a) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria.

b) Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Euskara Sustatzeko Zerbitzuko arduraduna.

c) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan lan munduko erabilera-planez arduratzen den teknikaria.

d) Euskararen Aholku Batzordeko bi kide, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatuak.

e) Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatutako Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako teknikari bat. Horrek idazkari lanak egingo ditu eta hitza izango du baina ez botorik.

2.- Epaimahaiak, dirulaguntzak emateko irizpideak kontuan izanik, erabaki-proposamena aurkeztuko dio Hizkuntza Politikarako sailburuordeari, hark behin betiko erabakia har dezan.

3.- Epaimahaiak, bestalde, ordezkoen zerrenda osatuko du, lehentasun-hurrenkeraren arabera, eta Hizkuntza Politikarako sailburuordeari emango dio dirulaguntza-proposamenarekin batera. Zerrenda horretara joko da onuradunen batek dirulaguntzari uko eginez gero.

12. artikulua.- Erabakia.

1.- Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean hasi eta handik bi hilabetera, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak bakoitzari dagokion dirulaguntza zehazten duen erabakia hartuko du, epaimahaiak aurkeztutako erabaki-proposamena kontuan hartuta. Erabakiak dirulaguntzen onuradunak, zenbatekoak eta,

6.- Las subvenciones previstas en la presente Orden son compatibles con aquellas que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier otra institución pública o privada, siempre que de ello no se derive la sobrefinanciación en el objeto de las ayudas previstas en la presente Orden. En caso de sobrefinanciación, se reducirá el importe de la subvención hasta el límite máximo que corresponda al coste total del programa subvencionado.

En todo caso, el importe de las ayudas concedidas por las entidades públicas no podrá ser superior en ningún caso al 70% del coste total del proyecto, programa o actividad.

7.- En lo referente a las subvención de gastos de personal, se deberá dar cumplimiento a lo recogido en la Ley por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Artículo 11.- Tribunal Calificador.

1.- Para el análisis y la evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá un Tribunal Calificador presidido por el Director de Estudios y Promoción del Euskera. Dicho tribunal estará integrado por los siguientes miembros:

a) La Directora de Normalización Lingüística en las Administraciones Públicas.

b) La responsable de Promoción de la Dirección de Estudios y Promoción del Euskera.

c) El/la técnico de la Viceconsejería de Política Lingüística responsable de los planes de uso en el mundo del trabajo.

d) Dos miembros del Consejo Asesor del Euskera designados por la Viceconsejera de Política Lingüística.

e) Un/una técnico de la Dirección de Estudios y Promoción del Euskera que, con voz pero sin voto, actuará como secretario/a, siendo designado/a por la Viceconsejera de Política Lingüística.

2.- El Tribunal Calificador, habida cuenta de los criterios para la adjudicación de las subvenciones, presentará la propuesta de resolución a la Viceconsejera de Política Lingüística con el fin de que dicte la resolución definitiva.

3.- Así mismo, el Tribunal Calificador confeccionará una lista con la relación de suplentes por orden de prioridad para el caso de que alguna de las entidades beneficiarias renunciara a la subvención concedida; dicha lista será adjuntada a la propuesta de resolución que se elevará a la Viceconsejera de Política Lingüística.

Artículo 12.- Resolución.

1.- La Viceconsejera de Política Lingüística, en el plazo de dos meses contados a partir del día de finalización de la presentación de solicitudes y a la vista de la propuesta de resolución emitida por el Tribunal Calificador, dictará la resolución que especifique la subvención correspondiente a cada programa. Dicha reso-

hala badagokio, dirulaguntzen betearazpen zuzena bermatzeko, baldintza bereziak zehaztuko ditu, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.- Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, zer-nolako eskabideak diren ikusita, bi eratako erabakiak har ditzake:

a) Arrunta.

b) Hitzarmenezkoa: batetik, 5. artikuluan eta 10. artikuluko hirugarren puntuan adierazitako kasuetan hartuko du sailburuordeak erabaki hau, eta, bestetik, dirulaguntza jasotzeko proposaturiko programak, proiektuak edo jarduerak dituen ezaugarriak direla eta, baldintza bereziak zehaztu beharra dagoenean. Hitzarmenean, dirulaguntzak emateko indarrean dagoen legediak ezartzen dituen betekizunak adierazi beharko dira, eta dirulaguntzaren onuradunak hitzarmena behar bezala izenpeturik bidali beharko du Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritzara. Horretarako, hamabost egun izango ditu, jakinarazpena jasotzen duen egunaren biharamunetik hasita.

3.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikulua dioenaren arabera, erabakia hartzeko epea igaro eta jakinarazpenik jaso ez bada, gaitzetsizat joko da eskabidea.

13. artikulua.– Dirulaguntzaren ordainketa.

1.– Izendatutako dirulaguntza aurkeztutako aurrekontuaren %30 baino gehiago den kasuetan, dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

a) Dirulaguntzaren %85, aurrekontuaren %50 justifikatu ondoren.

